

Emakumeentzako Jabekuntza Eskola

GETXO
2014-2015
Ikasturtea



Getxo
bizi ezazu



Duela hamar urte sortu zen Getxoko Emakumeentzako Jabekuntza Eskola, Basauriko eta Ermuko udalerriekin sarean sortu zen proiektua. Udalerri horiei Ondarroakoa gehitu zitzaien 2005ean.

Eskola apustu sendoa izan zen, emakumeok oraindik jasaten dugun desberdintasun- eta diskriminazio-egoerei dagokienez kontzientzia sortzeko eta horien parte-hartze soziopolitiko aktiboa bultzatzeko prestakuntza, topaketa eta hausnarketa guneak sortzeko beharra abiapuntu harturik.

Eskolak emakumeen jabekuntza sustatu nahi du, jendarte-eraldaketarako kontzientziazio- eta ikaskuntza-prozesurako eta horretarako tresnak eskuratzeko prozesua. Banakako nahiz taldekako jabekuntza bilatzen dugu, ez baita nahiko eremu subjektibo eta pertsonalean aldaketak eragitearekin, baizik eta, talde-mailan ere aldaketa gertatzea beharrezkoa da sareak sortuz eta partaidetza sozialaren bitartez.

Horretarako guztirako, Eskola hiru ardatzetan garatzen da, hots: prestakuntza, beste kultura batzuetako emakumeekin elkartrukea eta elkartasuna eta sistematizazioa, hori guztia ikuspegi feminista batetik garatuz.

Hamaikagarren ikasturte honetarako jardueren eskaintza aurkezten dizuegu. Aurreko edizioetan bezala, oso harrera ona izatea itxaro dugu eta, bide batez prestakuntza ez dela helburua, baizik eta, jendarte-eraldaketarako bitartekoa dela gogorarazten dugu.

Ikasturtearen hasiera

Hitzaldia: *Mugikortasun askerako eta segururako eskubidea. Aldaketa-proposamenak.*

Hizlaria: Teresa Del Valle Murga,
Antropologoa, UPV/EHUko katedratikoa.

Urriaren 7an, 19:30etan,
Villamonteko Kultur etxean.

Beste jarduera batzuk

Emakumezkoen genitalen ebaketaren prebentzioari buruzko hitzaldia eta "Bref" dokumentalaren aurkezpena.

Hizlaria: Marisa Sanz, *Munduko Medikuak elkarteko kidea.*


Urriaren 8an, 19:30etan, Villamonteko Kultur etxean.

Erakusketa: *Konpromisodun bidaia: Emakumezkoen Genitalen Ebaketaren aurkako borrokan prebentzioak duen balioa. Munduko Medikuak.*

Urriaren 1etik 15era, Villamonteko Kultur etxean.

Ikastaroei buruzko informazioa

Ikastaro guztiak Eskolako lokalean eskainiko dira, Martikoena kalea 16, 1. solairuan (Alangoko anbulatorioaren ondoan).

 Lokala irisgarria da mugikortasun arazoak dituztenentzat.

Gogorarazi Eskola eskola-ordutegian soilik egongo dela irekita eta Berdintasunerako Zerbitzua Foru kaleko 8. zenbakian dagoela.

Aktibatu zure ahotsa!

Orduak: 11 Prezioa: 5 €

Urriak 25 eta 26 **larunbata** ⌚ 10,00etatik 14,00etara
eta 16,30etatik 19,30etara

igandea ⌚ 10,00etatik 14,00etara

Irakaslea: Zahira Montalvo Herrero. *Arte dramatikoan aditua, gizarte eta kultur animatzailea eta gizarte-hezitzailea.*

Tailer praktiko honetan, geure gorputza soinu-tresna gisa ezagutzen hasi nahi dugu eta, taldean, gure ahotsen jabekuntza sentitu. Aurreiritziak, judizioak eta **nik ezin dut** esamoldea bidaia honetaz benetan gozatzeko eraitsi behar diren oztopo dira bide-zidor horretan.

Gorputzaren postura, arnasketa-teknikak, ahoskuntza eta burrunbariak, bokalizazioa eta ahoskera landuko ditugu; eta, hori guztia, ahotsa behar bezala erabiltzeko eta modu osasuntsuago batean proiektatu ahal izateko.

Ikertzeko, jolasteko, modulatzeko, komunikatzeko gogoia baduzu, ahotsa lan-tresnatzat erabiltzen baduzu edota jendaurrean hitz egin beharreko elkarteetan parte hartzen baduzu, zure zain gauzazu.





Nire mugak sentitzea

Orduak: 20 Prezioa: 5 €

Urtarrilaren 14tik martxoaren 18ra
asteazkenetan ⌚ 18,00etatik 20,00etara

Irakaslea: Itziar Gandia Quintanilla. *Psikologoa eta terapeuta, indarkeria matxistan aditua.*

Emakume askorentzako ezetz esan ahal izatea eta hori esateak emozionalki adierazten duena jasatea (errua, beldurra, mina eta abar) zeregin erraldoia da, kontuan hartuz gure inguruneak ez duela horretarako erraztasunik ematen.

Hau gure mugak lantzeko lekua da, gure espazio pertsonala noraino iristen den eta gainerako guztia hasten den lekua sentitzekoa. Mugak landuko ditugu gorputzean sentituz, norbait –neu barne– muga horiek gainditzen ari dela adierazten didaten zeinuak ezagutzen ikasiz.

Ondoren, gure mugek sortarazten dizkiguten emozioak eta horiek gure gorputzean nola eragiten duten landuko dugu taldean. Ezetz esan ahal izatea, horri eustea eta horrek dakarrena onartzea izango da gure zeregina.

Sustraiak eta fruituak. Emakumezkoen genealogia tailerra

Orduak: 16 Prezioa: 5 €

Urtarrilaren 12tik martxoaren 2ra
astelehenean ⌚ 18,00etatik 20,00etara

Irakaslea: Patricia Verdés Giménez. *Psikologoa eta terapeuta, emakumeen osasunean espezializatua.*

Gure amekin dugun harremanak, bere argialdiekin eta itzalekin, gure emakumezko subjektibotasuna eta bizitzan zehar izango ditugun harremanak eraikiko diren egitura jartzen du. Alabaina, patriarkatuak alabek beren amekin duten harremanaren benetako garrantzia eta garrantzia sinbolikoa kendu nahi izan dio isiltasunaren, idealizazioaren, gutxiestearen, erruduntzearen, barregarri uztearen eta abarren bitartez, distortsio horiek emakumeen arteko harreman guztietara eta horiek gutako bakoitz eta mundua eraldatzeko duten potentzialera hedatuz.

Tailer honetan, gure emakumezkoetasunaren herentzia hausnartuko dugu gure buruak geure jatorrian ezagutzeko eta harreman hori saneatzeko aukera izateko; emakumeek irudikatutako askatasun-erreferenteak edukitzeko; gure emakumezko subjektibotasuna eta nortasuna aztertzeke eta emakume izatearen esperientziari eta emakumeen arteko harremanei zentzu positiboa emateko.


Maitatzen ikasten

Orduak: 58 Prezioa: 20 €

Urriaren 16tik maiatzaren 28ra
ostegunetan 🕒 18,30etatik 20,30etara

Irakasleak: Inma Merino de Castro. *Emakumeen aurkako indarkerian esku-hartzeko masterra, emakumezkoen jabetze prozesuak laguntzen. Itziar Gandia Quintanilla. Psikologoa eta terapeuta, indarkeria matxistaren biktimeekin esku-hartzean aditua.*

Maitatzen ikasten beren bizimoduari kalitate handiagoa emateko beharrezko aldaketak egiteko prest dauden emakumeentzako lekua da. Taldean, kalte egiten diguna atzean uztea eta tratu egokiaren eta abarren bitartez erlazionatzeko modu berriak eraikitzea ahalbidetuko diguten tresnak ikasiko ditugu, geure buruetatik hasiz. Geure buruak zaintzeko, ezagutzeko eta hazteko leku bat eraikiko dugu.





Elkartasuna eta elkartrukea munduko emakumeekin ildoa

Jabekuntzarako kultura arteko gunea

Orduak: 18 Prezioa: 5 €

Urtarrilaren 17an, otsailaren 28an, martxoaren 14an eta 28an,
apirilaren 18an, maiatzaren 16an **larunbatetan** ⌚ 17,00etatik 20,00etara

Irakasleak: Cony Carranza Castro. *Generoan eta heziketa herrikoian aditua. Itziar Gandarias Goikoetxea. Ikertzaile feminista, gizarte-psikologiako irakaslea. Saioa Hernández Castro. Sexologoa. Norma Vázquez. Psikologoa, indarkeria matxistan eta jabekuntza-prozesuetan aditua.*

Gune honen bitartez, batetik, bertako emakumeen eta emakume etorkinen topagune bat mantendu nahi dugu, sareak sortzea eta aurreiritziekin eta estereotipoekin apurtzea erraztuko diguna; eta, bestetik, orokorrak diren eta gure emakume-eraikuntza zeharkatzen duten gai ei buruz hausnarketa egitea nahi dugu, kultura bakoitzak berezko dituen hainbat berezitasun gehitu arren. Horrela, besteak beste, migrazioa, emakumeen arteko harremanak, sexualitatea eta amatasuna gaiak landuko ditugu eta, hori guztia, dinamika parte-hartzailearekin eta ikuspegi feminista batetik.

Emakume beltzak Euskadin: nortasunak eta jabekuntza

Orduak: 8 Prezioa: 5 €

Azaroak 7 eta 8 **ostirala** ⌚ 16,30etatik 20,30etara
larunbata ⌚ 10,00etatik 14,00etara

Irakaslea: Jeanne-Rolande Dacogna Minkette. *Immigrazio, Berdintasun eta emakume migratzaileen Jabekuntzan irakaslea eta aholkularia.*

Migrazio afrikarrak Europara eztabaida politikorako eta humanitariorako gai bihurtu dira. Migrazio horiek zein testuingurutan gertatzen diren eta emakume beltzek horietan duten tokia aztertuko ditugu.

Emakume migratzaile beltzak gabezia handiak dituzten eta jendartea eta politika eraldatzeko gaitasunik ez duten emakume gisa irudikatzen dira.

Aniztasunetik eta eskubide berdintasunetik gune bizigarriak eraikitzeko gauzatzen dituzten aldaketa-prozesuak ezagutuko ditugu.

Bukatzeko, emakume beltzen autonomia eta kontzientziazio feminista laguntzeko eta sustatzeko jarraibideak adieraziko ditugu.

Autodefentsa feminista

Orduak: 12 Prezioa: 5 €

Azaroak 28 eta 29 **ostirala** ⌚ 16,30etatik 20,30etara
larunbata ⌚ 10,00etatik 14,00etara;
eta 15,30etatik 19,30etara

Irakaslea: Maitena Monroy Romero. *Fisioterapeuta, ekintzaile feminista, indarkeria sexistan eta autodefentsan aditua.*

Erasoak identifikatzen, eta indarkeriak -bere alderdi guztietan- dituen iturburu eta eraikuntza, eta norbanakoarengan eta taldearengan dituen ondorioak aztertzen ikasiko dugu. Eguneroko bizitzan gertatzen diren eraso-egoerak konpontzeko eta haiei erantzuteko mekanismoak ikasiko ditugu.

Espazio bat sortu nahi dugu, geure eskubide eta gaitasunez jabetzea, konfiantza eta segurtasuna sustatzea ahalbidetuko duena, indarkeriaren inguruko mitoak hautsiz eta emakumezkoen ahuldade fisikoari buruzko estereotipo zaharrak desmitifikatuz.

Feminismo postkolonialak: ahots disidenteak mugaldeen artean

Orduak: 8 Prezioa: 5 €

Urtarrilak 16 eta 17 **ostirala** ⌚ 16,30etatik 20,30etara
larunbata ⌚ 10,00etatik 14,00etara

Irakaslea: Itziar Gandarias Goikoetxea. *Ikertzaile feminista, Deustuko Unibertsitateko gizarte-psikologia saileko irakaslea.*

Ikastaro honen xedea mendebaldeko teoria feministaren identitate klasikoak zalantzan jarri dituzten geografia desberdinetako emakumeek gauzatutako praktikak ezagutzea da. Kolonizazio ondoko aroan sortutako feminismo horiek emakumeen historia eta haien borrokak berrinterpretatzen dituzte, feminismo zuriaren kolonizazioa kritikatu eta azterketarako ardatz berriak aurkeztuz, hala nola, arraza, maila, etnia, migrazioa eta kolonialitatea, identitate zuri tradizionaletik ihes egiten duten gaur egungo mugimenduak ulertzeko.

Hirigintza, generoa eta parte-hartzea


Orduak: 10 Prezioa: 5 €

Urriaren 15etik azaroaren 12ra

asteazkenetan 🕒 18,30etatik 20,30etara

Irakaslea: Ane Alonso Méndez. *Arkitektoa, generoan aditua eta Hiria Kolektiboko sortzaileetakoa.*

Gure herriak eta hiriak gure bizitzen agertoki dira eta, ingurune horiek nola antolatuta daudenaren arabera, gure eguneroko bizitza errazagoa edo zailagoa izango da, gure bizitza-errealitatearen arabera, non, genero-faktoreak eragin handia izaten jarraitzen duen. Ikastaro honetan, hirigintzaren praktika profesionalean zehazten diren alderdi desberdinak aztertzen saiatuko gara, gure eguneroko bizitzan zuzenean nola eragiten duten eta toki jakin bateko biztanleria osoaren beharretara ondoen egokitzen diren inguruneen proposamenean genero-ikuspegia eta herritarren parte-hartzea gehitzeak zein neurritan laguntzen duen hausnartzeaz gain. Horrela, hiri-eredu desberdinak ikusiko ditugu mugikortasunari, segurtasun-pertzepzioari, ekipamenduen kudeaketari eta herritarren parte-hartzeari dagokionez.



Zaindu geure burua zainduz

Orduak: 16 Prezioa: 5 €

Urriaren 15etik abenduaren 3ra
asteazkenetan ⌚ 10,00etatik 12,00etara

Irakaslea: Kontxi López Soria. *Gizarte-laguntzailea, sexologoa. Berrelkarketa-terapian prestatutako profesionala.*

Tailerraren xedea zaintzaileen rolari, norberarentzako denbora izateko eskubideari edo berdintasunean eta errespetuan oinarrituz familia-harremanen negoziazioari buruzko gogoeta sustatzea da.

Halaber, tresnak eskaintzen ditu nork bere burua zaintzeko, gorputzaren, emozioen eta norberaren nahien kontzientziatik abiatuz. Zaintzea ez da betebeharra; edozein kasutan ere negoziatu beharreko aukera izan behar du, norberaren beharrak alde batera utzi gabe.

Hartu atsedenaldia eta parte hartu.

Nire sexualitatea sasoi betean jartzen

Orduak: 20 Prezioa: 5 €

Urriaren 14tik abenduaren 16ra
asteartetan ⌚ 18,30etatik 20,30etara

Irakaslea: Inma Merino de Castro. *Osasun Komunitariorako Sexu-Heziketa eta Sexu-Terapia Berrelkarketa-Terapian masterra. Indarkeria matxistan aditua.*

Pertsona guztiak sexudun izakiak gara jaiotzen garenetik hiltzen garen arte. Zergatik uzten dugu alde batera gure izatearen alderdi garrantzitsu hori? Zergatik ezabatzen dugu edota "justukoarekin" konformatzen gara jatea edo lo egitea bezain beharrezkoa denean gure garapen eta oreka emozional, gorputz nahiz arrazionalerako?

Sexu-adierazpen desberdinak izango dira sexualitateari, gailentzen diren jendarte-aginduei, tabuei, erruei eta lotsei, plazerari, urrapenei eta abarrei buruzko hausnarketaren gai nagusi.

Osasuna ildoa

Krisiaren ahalmen sendatzailea. Doluak eta galerak

Orduak: 11 Prezioa: 5 €

Otsailak 13 eta 14 **ostirala** ⌚ 17,00etatik 20,00etara
larunbata ⌚ 10,00etatik 14,00etara eta 16,00etatik 20,00etara

Irakaslea: Kontxi López Soria. *Gizarte-laguntzailea, sexologoa.*
Berrelkarketa-terapian prestatutako profesionala.

Pertsona baten bizitzan, egoera larriak eta batzuetan nola konpondu ez dakigun edo konponbide zaileko esperientzia nahasiak jasaten dira. Egin beharreko ibilbideak, bizi beharreko nahasketak... dira. Horiek gure erreakzionatzeko moduen aurrean jartzen gaituzte, aurre nola egin asmatzeko, beste modu batera ulertzeko. Horrek heltzeko, ikasteko eta bizitza onartzeko eta ulertzeko eta bizi-aukera berriak ezagutzeko aukera ematen digu.



Maiteminak euskal literaturan (euskaraz)

Orduak: 10 Prezioa: 5 €

Apirilaren 13tik maiatzaren 11ra
astelehenetan 🕒 19,00etatik 21,00etara

Irakaslea: Iratxe Retolaza Gutierrez. *Literatura-kritikaria*
eta UPV/EHUko irakaslea.

Literaturara hurbiltzeko bi begirada gurutzatuko ditugu irakurketa-saio hauetan: batetik, maiteminaren inguruko diskurtso eta errepresentazio literarioak; eta bestetik, teoria eta diskurtso feministek maiteminaren inguruan garaturiko ikuspegiak. Bidegurutze horretan, literaturak maiteminaren inguruko irudiak, sinboloak eta leloak nola eraiki dituen aztertuko dugu.

Galdera hauetariko zenbait erantzuten ahaleginduko gara irakurketa-talde honetan: nola irudikatu dira maiteminak euskal literaturan? Maiteminaren inguruko topikoak iraunarazteko gune izan al da euskal literatura? Euskal literaturan maiteminaz jarduteko diskurtso berriak proposatu al dira? Begirada feministak maiteminaz jarduteko zer diskurtso garatu du literaturan? Irakurleok nola eraikitzen ditugu maitemin literarioaren eta maitemin gorpuztuaren arteko zubiak? Testu literarioak baliatzen al ditugu geure maiteminak ulertzeko/ interpretatzeko/ eraldatzeko?

Horretarako, ikastaroaren metodologia praktikoa eta parte-hartzailea izango da. Literatura testuen irakurketa eginez, parte-hartzea eta eztabaida bultzatuko dira.

Kultura birdefinitzen ildoak

Generoa, emozioak eta umorea Orduak: 11 Prezioa: 5 €

Abenduak 20 eta 21

larunbata ⌚ 10,00etatik 14,00etara eta 15,30etatik 20,30etara

Igandea ⌚ 10,00etatik 13,00etara

Irakaslea: Virginia Imaz. *Pailazoa eta ipuin kontalaria; Oihulari Klown antzerki-konpainiaren sortzailea.*

Zeri egiten diogu barre? Gizonezkoak nahiz emakumezkoak gauza berdinei egiten al diegu barre? Zer da gorputz osoaz barre egitea? Tailer honen xedea geuretzako espazioa eta denbora izatea da, geuri entzuteko eta sentitzen duguna ez dela egokia esaten diguten generoari eta bestelakoei buruzko mezuak eta estereotipoak desaktibatzen. Tailerrak emozio biologikoei eta kultur emozioei buruz gogoeta egitera animatzea du xede, adierazpen- eta komunikazio-ariaketen bidez barrena husteratzen gaituz, alaitasuna eta barrea naturaltasunaz ateratu daitezkeen. Umorearen gaia, berdintasunari begira, landuko da, berrezitze emozionalaren ikuspegitik, egindako galderaren bati erantzuten saiatuz eta umoreak gure osasunean eta gure harreman pertsonaletan eta gizarte-harremanetan duen eragina azpimarratuz.

Autonomia suspertuz ildoak

Autoen mekanikari buruzko tailerra Orduak: 6 Prezioa: 5 €

Apirilak 24 eta 25 **ostirala** ⌚ 17,00etatik 20,00etara

larunbata ⌚ 11,00etatik 14,00etara

Irakaslea: Silvia Macho. *Automozioan goi-mailako teknikaria; gidari profesionala.*

Ikastaro honen xede nagusiak honako hauek dira: errekuntza-motorraren oinarrizko funtzionamenduaren berri izatea, dieselaren eta gasolinaren arteko desberdintasunak ezagutzeko, eta autoaren oinarrizko osagaiak dagokien lekuan jartzea, besteak beste, alternadorea, abio-motorra eta bateria.

Horrez gain, autoaren mantentze-lana egiten ikasiko dugu (iragazkiak, olioak eta balaztak aldatzea, baita gurpilak aldatzen ere, haiek zulatzen direnean).

● **Adi honako data hauei:**

Aurretiko izen-ematea irailaren 17etik 24ra bitartean egingo da
Onartutakoen zerrendaren argitalpena: irailaren 29an
Matrikula: irailaren 30etik urriaren 6ra

● **Aurretiko izen-ematea:**

Aurretik izena emateko, inprimaki bat bete beharko da Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan edo <http://www.getxo.net> web orriaren bitartez.

Plazak mugatuak dira, eta aurretik izena emandako emakumeen artean zozketatuko dira. Getxon erroldatutako emakumeek lehentasuna izango dute.

Onartutakoen zerrendak Villamonteko Kultur Etxean, Herritarren Arretarako Bulegoetan eta <http://www.getxo.net/es/igualdad> web orrian argitaratuko dira.

Partehartzaile bakoitzak gehienez 3 ikastaroetan izena eman dezake.

● **Aurretik izena emateko eta matrikula egiteko tokia:**

Emakumeentzako Jabekuntza Eskola
Martikoena kalea, 16
(Alangoko anbulategiaren ondoan)

astelehenetik asteazkenera 📞 8,00etatik 13,00etara;
ostegun eta ostiraletan 15,00etatik 20,00etara.

● **Matrikula**

Behin betiko matrikula Emakumeentzako Jabekuntza Eskolan egingo da.

Behin zenbatekoa ordainduta, baja emanez gero, ez da dirurik itzuliko.

Diru-sarren Berme-Errenta jasotzen duten ikasleek, Gazte Txartela dutenek edo langabeziaren txartela dutenek, 5 € ordainduko dituzte ikastaroko.

● **Hartzaindegi zerbitzua egongo da eskaera egiten dutenentzat**

Informazio gehiago: <http://www.getxo.net/es/igualdad>

Harremanetarako
☎ 94 466 01 36
berdintasuna@getxo.net